



FORU DEKRETU HONETARAKO PROIEKTUA: FORU DEKRETUA, ZEINAREN BIDEZ ALDATZEN BAITA NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO LANGILE FUNTZIONARIOEN LANALDIAREN MURRIZKETA ARAUTZEN DUEN APIRILAREN 4KO 27/2011 FORU DEKRETUA

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publikoari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133.1 artikulua xedatzen duenez, lege baten edo erregelamendu baten proiektua edo aurreproiektua prestatu aurretik, kontsulta publiko bat egin behar da, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atariaren bidez, non jasoko baita zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta ordezkariak handieneko erakundeek, honako hauei buruz: ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak, foru dekretua onesteko premia eta egokitasuna, arauaren xedeak eta egon litezkeen beste aukera batzuk, arauemaileak eta ez arauemaileak.

Era berean, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeak 13. artikulua j) apartatua dioenez, edozein herritarrek behar den denborarekin eskuratu ahal du herritarren parte-hartzea izanen duten proposamenei buruzko informazioa, egiaz eta eraginkortasunez parte hartzearen planen, programen eta parte-hartzearen menpe jartzen diren beste proposamen batzuen diseinuan, prestaketan, aldaketan, berrikuspenean eta ebaluazioan. Gainera, 5/2018 Foru Legearen 21. artikulua ezartzen duenez, Nafarroako administrazio publikoek argitara eman behar dituzte kontsulta publikoak, halakoak planteatzen direnean foru legeen aurreproiektuak eta erregelamendu proiektuak prestatu aurretik.

Aipatutako arauari jarraikiz, alde aurreko kontsulta bat abiarazi zen, honako foru dekretu honen proiektua prestatzeko: Foru Dekretua, zeinaren bidez aldatzen baita Nafarroako administrazio publikoetako langile funtzionarioen lanaldiaren murrizketa arautzen duen apirilaren 4ko 27/2011 Foru Dekretua. Kontsulta hori Nafarroako Gobernu Irekiaren Atarian argitaratu zen, webgune horren helbide honetan:

<https://gobiernoabierto.navarra.es/eu/participacion/procesos/kontsulta-publikoa-honako-foru-dekretu-hau-prestatu-aurrekoa-27-2011-foru-dekretua-aldatzea>

Aldez aurretiko kontsulta horretan, herritarrek parte hartu ahal izan dute, iradokizunak edo ekarpenak aurkeztuz, 15 egun balioduneko epean, 2021eko otsailaren 19tik martxoaren 11ra bitarte. Aukera hori gauzatu ahal izateko, interesdunen eskura jarri zen posta elektronikoko helbide hau:

funcionpublica@navarra.es

Jendurreko epe hori igaro ondoren, esan beharra dago ez dela ekarpen edo iradokizunik jaso parte hartzeko prozesuak iraun duen bitartean. Horrenbestez, foru dekretuaren proiektua idazten hasiko dira.

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an.

Sinadura jatorrizkoan dago